

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren,
Merkataritzaren eta Turismoaren Saila

2019an Gasteizko udalerrian ostalaritza-enpresa txikiak ezarri eta modernizatzeko laguntza ekonomikoak emateko udal programa ebaztea

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1 eta 4 artikuluetan xedatutakoarekin ildotik, iragarki honen bitartez jakinarazten zaie interesdunei Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak 2019ko urriaren 22an emandako ebazpena, zeinaren bidez Gasteizko udalerrian 2019. urtean ostalaritza-enpresa txikiak ezarri nahiz modernizatzeko laguntza ekonomikoak emateko udal programa ebatzi baitzuen. Hauxe da ebazpenaren edukia:

“Tokiko Gobernu Batzarraren 2018ko abenduaren 28ko erabakiz onetsi ziren Gasteizko Udalerriaren dirulaguntzetarako deialdiak arautzeko oinarri orokorrak 2019. urterako, eta horien 2. atalean zehazten dira aurreikusitako eremuak eta dirulaguntzen ildoak; hain zuzen ere, 24. ildoak da ostalaritza-enpresa txikiak ezarri nahiz modernizatzeko laguntzei dagokiena (2019ko otsailaren 13ko ALHAO, 19.zenbakia).

Halaber, Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko martxoaren 29an egindako bilkuran onetsi zituen Gasteizko udalerriaren ostalaritza-enpresa txikiak ezarri eta modernizatzeko laguntza ekonomikoaren udal programaren oinarriak eta deialdi publikoa — 2019ko apirilaren 24ko ALHAO, 48. zk.—, laguntzak emateko prozedura gisa norgehiagoka baliatuta, 50.000,00 euroko zuzkidurarekin, 2019ko ekitaldira luzatutako udal aurrekontuko 0822.4314.489.64 partidaren kontura.

2019ko ekainaren 6an amaitu zelarik deialdiko 7. oinarrian eskabideak aurkezteko ezarritako epea, 2019ko urriaren 18ko data zuen idazki baten bidez, Merkataritza Zerbitzuko teknikariek jakinarazi zuten epearen barruan hogeita zazpi (27) eskabide jaso zirela, eta horietako hamaseik (16) ez zituztela betetzen oinarrietan ezarritako betebeharrak.

Hautatze eta Jarraipen Batzordeak 2019ko urriaren 18an egindako bilkuran analizatu eta eztabaidatu zituen eskabideak; betebeharrak betetzen zituzten egiaztatu eta aurkeztutako proiektuak balioetsi eta lehenetsi zirelarik, deialdia ebazteko proposamena aurkeztu zitzaion Ekonomia-Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariari, non betebeharrak ez betetzeagatik hamasei (16) eskabide ukatzeko eta bost (5) dirulaguntza - horietako bat partziala— emateko proposatzen baitzen, guztira 50.000,00 euro, eta agortu egiten dute deialdira bideratutako zuzkidura ekonomikoa. Orobat erabaki zen betebeharrak beteta ere aurrekontu-zuzkidura agortu izanagatik dirulaguntzarik gabe geratu direnekin itzarote-zerrenda eratzea.

Deialdi honetan ezarritako prozeduraren arabera, Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saileko zinegotzi ordezkariak du eskabideak ebazteko eskumena, eta sail hori, udal hauteskundearen ondoren, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saila izatera pasa da, alkatearen 2019ko ekainaren 21eko dekretua tarteko.

Horrenbestez, udal aurrekontuetan nahikoa kreditu-zuzkidurarik badagoenez, Hautatze eta Jarraipen Batzordeak egindako proposamena aintzat harturik eta eskumenak eskuordetzeko 2019ko martxoaren 29ko erabakia dela medio, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak hau,

Ebatzi du

Lehena. Deialdiaren oinarrietako betebeharrak ez dituztela betetzen egiaztatu ondoren, 2019an Gasteizko udalerrian ostalaritza-enpresa txikiak ezarri eta modernizatzeko udal programaren barruan eskatutako laguntza ekonomikoa ukatzea ondorengoei:

Zenbakia	N.A.N. / I.F.Z.	Bete ez den oinarria	Ez emateko arrazoiak
1	J01567163	4	Gutxieneko inbertsiorik ez
2	16278547K	4	Gutxieneko inbertsiorik ez
3	72748806J	4	Gutxieneko inbertsiorik ez
4	A01031574	3.4	Ez ditu EJZri dagozkion baldintzak betetzen
5	B01546167	3.12	2018ko deialdiko laguntzen onuraduna lokal berarengatik
6	J01577147	4	Gutxieneko inbertsiorik ez
7	72734226S	4	Gutxieneko inbertsiorik ez
8	72745196Z	5	Inbertsioa ez da diruz laguntzekoa
9	J01572734	4	Gutxieneko inbertsiorik ez
10	B01106681	4	Gutxieneko inbertsiorik ez
11	J01571918	4	Gutxieneko inbertsiorik ez
12	16251645Y	4	Gutxieneko inbertsiorik ez
13	B01323864	4	Gutxieneko inbertsiorik ez
14	18595002P	4	Gutxieneko inbertsiorik ez
15	Y2299395F	4	Gutxieneko inbertsiorik ez
16	X8899116W	4	Gutxieneko inbertsiorik ez
Guztira 16 eskabide ukatuta			

Bigarrena. Deialdiko betebeharrak betetzen direla egiaztatu eta aurkeztutako eskabideak balioetsi eta lehentasun-hurrenkera ezarri ondoren (10. eta 11. oinarriak), Gasteizko udalerrian ostalaritza-enpresa txikiak ezarri nahiz modernizatzeko laguntza ekonomiko hauek ematea ebatzi da; horiek diru-zuzkidura agortzen dute:

Zenbakia	N.A.N. / I.F.Z.	Puntuazioa	Diruz laguntzekoa den ehunekoa	Zona oinarrien arabera	Egindako inbertsioa (euro)	Diru-laguntza teorikoa	Lortutako diru-laguntza
1	71342095M	60,00	34,00	II. eranskina	42.234,47 euro	12.000,00 euro	12.000,00 euro
2	B01565449	58,50	33,78	II. eranskina	114.019,80 euro	12.000,00 euro	12.000,00 euro
3	B01403849	57,75	33,66	II. eranskina	59.976,83 euro	12.000,00 euro	12.000,00 euro
4	J01377936	57,25	33,59	II. eranskina	39.660,51 euro	12.000,00 euro	12.000,00 euro
5	B95934758	56,00	33,40	II. eranskina	162.549,20 euro	12.000,00 euro	2.000,00 euro
Guztira							50.000,00 euro

Hirugarrena. Laguntza horien zenbatekoa (50.000,00 euro) 2019rako luzatutako udal aurrekontuko 0822.4314.489.64 partidaren kontura jasota uztea (6. oinarria), eta horiek ordaintzea onestea.

Laugarrena. Udalaren Merkataritza Zerbitzuko teknikariak izendatzea enpresa-proiektu horien jarraipenaren arduradun.

Bosgarrena. Dirulaguntzen onuradunek deialdiaren oinarrietan ezarritako betebeharrak betetzen ez badituzte, laguntza horiek bertan behera utzi ahalko dira, eta laguntza osoa edo zati bat ordainduta badago jasotako laguntza itzultzeko eskatuko zaie.

Seigarrena. Deialdiko zuzkidura ekonomikoa agortuta betebeharrak betetzen dituzten hainbat eskabide laguntzarik gabe geratu denez, itxarote-zerrenda hau sortzea onestea, Ekonomia Sustapenaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailak 2019an ekonomia-jarduera eta enplegua sustatzeko dituen beste laguntza deialdietan saldoa soberan geratuz gero laguntza hauetan baliatzeko.

Zenbakia	N.A.N. / I.F.Z	Lortutako puntuazioa	Diruz laguntzekoa den ehunekoa	Zona oinarrien arabera	Egindako inbertsioa	Diru-laguntza teorikoa	Falta den diru-laguntza
1	B95934758	56,00	33,40	II. eranskina	162.549,20 euro	12.000,00 euro	10.000,00 euro
2	B01563980	55,00	33,25	II. eranskina	65.861,31 euro	12.000,00 euro	12.000,00 euro
3	J01569136	49,25	32,39	II. eranskina	8.963,21 euro	2.902,96 euro	2.902,96 euro
4	B01568104	40,00	31,00	II. eranskina	60.918,25 euro	12.000,00 euro	12.000,00 euro
5	B01520832	27,50	29,13	II. eranskinetik kanpo	23.700,13 euro	6.902,66 euro	6.902,66 euro
6	09414355H	17,75	27,66	II. eranskinetik kanpo	9.948,96 euro	2.752,13 euro	2.752,13 euro
7	B01484674	3,00	25,45	II. eranskinetik kanpo	23.678,7 euro	6.026,23 euro	6.026,23 euro
Total							52.583,98 euro

Zazpigarrena. Ebazpenaren berri ematea dirulaguntzen eskatzaile guztiei, eta orobat jakinaraztea ebazpenaren kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dela zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik, edo, aukeran, berraztertze errekurtsioa, ebazpena eman duen organo berari zuzenduta, hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik; horren berariazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, errekurtsioa ezesten duen ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik”

Vitoria-Gasteizen, 2019ko urriaren 25ean

Administrazio Zerbitzuko burua
LUCIO CRUCELEGUI Y JÁUREGUI